

## Mesfidantza

*Euskaldunon Egunkaria*, 1992-09-29: 2.

Gizakien arteko fidantza hauskorra da oso. Leialtasunean datza. Zuk "bai" esan eta esandakoa betetzen baduzu, ez behin, beti baizik, gizakien arteko konfidantza baten dependentzia sortzen ari zara. Egiarena, hain zuzen. Aitzitik, zuk bat esan eta bestea egiten baduzu, eta ez behin, baizik eta behin eta berriz, susmoaren bidetik mesfidantza ari zara sortzen. Nik kazetaritza ikasi nuen lekuan praktika sinple baten adibidea jaso nuen: Gai honen teoriaz klasea izan genuen hurrengo "Herri-Iritzia"ko ikastaroan irakasleak esan zion lehen lerroko ikasle bati: "Nik argia pizteko eskatuko banizu, zeuk zer egingo zenuke? / Argia piztu. / Egin". Eta ikaslea altxa, argiaren giltzara joan eta piztekoari eman zionean txirriña hasi zen jotzen, berriz itzali zuen arte. "Eseri –esan zion–: zergatik zeunden argia piztuko zela hain segur? / Beti hala gertatu delako. / Orain berriz argia piztutzeko eskatuko banizu, zer egingo zenuke? / Ez dakit, baina ez nioke pizteko berari emango!". Eta ikas-taldeak parra egin zuen. Hurrengo klasearen hasieran berriz egin zion irakasleak eskaera bera, argia piztekoa, beste ikasle bati, eta hau altxa zen eta galdetu egin zuen: "Zein giltza da argia piztekoa? / Zu zara kazetaria!... / Saioa egin beharko dut. / Ez zara fido? / Ez. / Zer galdu duzu? / Lehen nuen fidantza". "Hara –esan zigun irakasleak– bizi guztiaren praktikan irabazitako fidantza bapatean galdu. Egiak susmagarriak egiten zaizkigu". Eta orain, gure egoera honetan, nork aldatzen dizkio pizgailuari kableak?